

HH3ko HAURREN BAZKALDU ONDORENGO ATSEDENA

Azken ikasturteetan HH3ko haurrek bazkaldu ondoren jolasteko edo atsedena hartzeko aukera izan dute. Atsedenerako espazio bat egokitu izan da eta jolaserako beste bat. Honekin guztiarekin zera lortu nahi dugu: haur bakoitzaren beharretara egokitzea. Antolaketa ez da erraza eta jangelako hezitzaileek lan handia egiten dute hau guztia kudeatzeko. Bestalde, esfortzuak merezi duela uste dugu.

Aurten osasun egoera dela eta bete behar dugun protokoloak antolaketa guztia asko zaildu digu. **Bizikidetzatalde egonkorak** mantendu behar ditugu eta nahikoa baliabiderik ez dugu azken urteetan egin ditugun zenbait hobekuntza mantentzeko, besteak beste, sarrera-irteera ordutegiak eta antolaketa orohar, harrera malgua, adinartekotasuna eta psikomotrizitatea, baita HH3ko haurren bazkaldu ondorengo momentua ere.

Irailean zehar egin dugun lanketa eta balorazioarekin zera ondorioztatu dugu: osasun protokoloak aginduta, ezinezkoa zaigu bazkaldu ondorengo atsedena eskaintzea.

HH3 SARRERA-IRTEERAK

Egoera berezi honetan sarrera-irteerak antolatzea ez da erraza. Ondorioz, ikasturtea hasi denetik aldatuta eta gora-beherak izan direla badakigu. Hala ere, guztia, haurraren ongizateari begira egiten saiatu gara. Bitartean bizitu eta ikasi dugunaren ondorioz, **urriaren 5etik aurrera** sarrera-irteerak honela izango dira:

ORDUA	SARRERA
8:50	Sarrera nagusitik sartu eta barruko eskaileretatik igo.
12:30	Sarrera nagusitik sartu eta barruko eskaileretatik igo.
14:45	Atariko atetik sartu eta bertan tutore erreferente batek harrera egingo dizue.
16:45	Sarrera nagusitik sartu eta barruko eskaileretatik igo.

Adin honetan haurra gurasoekin bere espaziora etortzea eta bertan harrera eta agurra egitea garrantzitsua iruditzen zaigunez, nahiz eta protokoloak ez aholkatu, momentu hauetan helduei eraikin barrura sartzea baimenduko zaizue, baina arren eskatzen dizuegu, ondorengoa betetzea:

1. Sarrera-irteera orduak ez dira malguak, dagokizuen **ordutegia errespetatu** (eraikin desberdinetan seme-alabak dituzuen familien kasuan izan ezik, aurretik tutoreekin hitz eginda bezala).
2. **Arduradun batek atea ireki arte ez sartu ikastolan** eta dagokizuen kartelaren ondoan itxaron.
3. Sarreran edo irteeran, beste mailetako taldeekin aurkituz gero, arduradunek esandakoa errespetatu.
4. Eraikinaren barruan **ahalik eta denbora gutxien** egon.
5. Mesedez, distantziak mantendu, jende pilaketak saihestu eta markatutako seinalizazioa errespetatu.

Arduraz jokatzeari eskatzen dizuegu, guztion jarrerak ikastolako beste taldeen sarrera-irteeretan eragina izan dezakelako.

DESCANSO DE LOS NIÑOS-AS DE HH3

En los cursos anteriores, después de comer, los niños y niñas de HH3 han tenido la opción de jugar y descansar. Para ello se ha habilitado un espacio de descanso y otro de juego. Con todo esto nuestro objetivo ha sido adaptarnos a las necesidades de cada niño-a. La planificación de este momento no es fácil y las educadoras del comedor hacen un gran trabajo para gestionar este momento. Por otra parte, creemos que el esfuerzo merece la pena.

El protocolo que tenemos que cumplir este año debido al estado de salud nos ha complicado mucho la planificación del descanso, entre otras cosas porque debemos mantener los grupos estables de convivencia y no tenemos recursos suficientes para mantener algunas mejoras que hemos hecho en los últimos años como la organización general de las entradas y salidas, la acogida flexible, interrelación entre niños-as de diferentes edades, psicomotricidad, así como el momento posterior a la comida de los niños-as de HH3.

Con la elaboración y valoración que hemos realizado durante el mes de septiembre hemos llegado a la conclusión de que por imperativo del protocolo sanitario, nos es imposible ofrecer descanso después de comer.

HH3 ENTRADAS Y SALIDAS

Organizar las entradas y salidas en esta situación tan especial no es fácil. Sabemos que desde el inicio del curso escolar hemos hecho bastantes cambios. Sin embargo, todo lo hemos hecho primando el bienestar de los niños-as. Teniendo en cuenta lo vivido y aprendido mientras tanto, **a partir del 5 de octubre** las entradas y salidas serán de la siguiente manera:

HORA	ENTRADA
8:50	Entrad por la entrada principal y subid por la escalera interior.
12:30	Entrad por la entrada principal y subid por la escalera interior.
14:45	Entrad por la puerta del patio y os recibirá una tutora referente.
16:45	Entrad por la entrada principal y subid por la escalera interior.

Dado que a esta edad nos parece importante que el niño-a acuda con sus padres-madres a su aula, aunque el protocolo no lo aconseje, en las entradas y salidas se permitirá el acceso de los adultos al interior del edificio, pero os rogamos que cumpláis lo siguiente:

1. *Las horas de entrada y salida no son flexibles, respetad el horario que os corresponde (salvo en el caso de familias con hijos-as en edificios diferentes, como ya habéis hablado previamente con las tutoras).*
2. *No entréis en la ikastola hasta que un responsable abra la puerta y esperad donde os corresponda.*
3. *En la entrada o salida, en caso de encontrarse con otros grupos, respetad las indicaciones de los responsables.*
4. *Procurad permanecer el menor tiempo posible en el interior del edificio.*
5. *Por favor, mantened las distancias, evitad las aglomeraciones y respetad la señalización marcada.*

Os pedimos que actuéis con responsabilidad: la actitud de todos-as puede influir en las entradas y salidas de los demás grupos de la ikastola.